

KANBOKO HERRI BILTZARRAREN

2023ko martxoaren 31ko

BILKURA AKTA LABURRA

Hor ziren: Christian Devèze, Auzapeza, Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Yolande Huguenard, Didier Irastorza, Marie Aristizabal, Christiane Hargain-Despéries, Vincent Goytino, ordeak, Véronique Cadepond-Larronde, Corinne Othatceguy, Nicole Amestoy, Jean-Jacques Lassus, Isabelle Ayerbe, Maud Gastigard, Roger Barbier, Peio Etcheleku, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, herri biltzarkideak.

Ez ziren hor: Robert Poulou, ordea, Jean-Paul Eyherachar, Bernadette Remeau, Sébastien Carre, Carmen Gonzalez, Jean-François Lacosta, Lilian Hirigoyen, herri biltzarkideak.

Ahalordeak: Robert Poulou-k Maud Gastigard-i, Jean-Paul Eyherachar-ek Isabelle Ayerbe-ri, Bernadette Remeau-k Roger Barbier-i, Sébastien Carré-k Christian Devèze-ri, Carmen Gonzalez-ek Christiane Hargain-Despéries-i, Jean-François Lacosta-k Peio Etchelekuri, Lilian Hirigoyen-ek Nathalie Aïçaguerreri.

- Saioko idazkariaren izendapena.

Biltzarkideek aho batez, Véronique Cadepond-Larronde anderea izendatu dute saioko idazkari izateko.

Herri biltzarkideen kopurura	29
Presente diren herri biltzarkideak.....	22
Ahalorde kopurua.....	7
Hor ez diren kopurua.....	7

– Solasgaiak:

001 – Musdehalsuenbordako bidea: lur sailaren sailkatzea eta uztea	2
002 – Langileria: langile bat Euskal Elkargoaren esku ezartzeko hitzarmena.....	3
003 – Arnagako zalditegien eta laranjategiaren zaharberritzea: ad hoc batzorde baten osatzea.	3
004 – Aurrekontu nagusia: 2022ko emaitzaren esleipena.....	4
005 – Hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsia: 2022ko emaitzaren esleipena.	5
006 – 2023ko aurrekontuaren norabideak.....	5

Auzapezaren erabakien komunikazioa.

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2122-22 eta L.2122-23 artikuluen arabera, eta 2020ko ekainaren 11ko Herri Biltzarraren erabakia ikusirik, honakoen berri eman da:

- Hilerriko kontzesioen emateko eta berriz hartzeko erabakiak, 2023ko otsailaren 19tik martxoaren 18ra:

- 30 urteko kontzesioen erostea (lurrean): 1
- 2023ko martxoaren 9ko D-2023-006 erabakia: Kanboko altxortegian eperako kontu baten irekitzea 2023ko martxoaren 20tik eta 6 hilabeterako, 700 000 €ko zenbatekoarekin.
- 2023ko martxoaren 9ko D2023-007 erabakia: Kanboko altxortegian eperako kontu baten irekitzea 2023ko martxoaren 20tik eta 9 hilabeterako, 400 000 €ko zenbatekoarekin..

001 – Musdehalsuenbordako bidea: lur sailaren sailkatzea eta uztea

ERABAKIA:

Magis jaunak, auzapez ordea, biltzarrari jakinarazi dio JV HZZk (Higiezin Sozietate Zibila / SCI) berdegune baten eskuratzeko xedea adierazi duela, 2010 departamenduko biderearen eta Musdehalsuenborda biderearen kantoian duen jabegoaren segidan dagoena.

54 m²ko sailak ez duenez sarbide edo zirkulazio funtziorik betetzen, Frantziako Errepideen Kodeko L.141-3 artikulua araberara, saila bestela sailkatu daiteke, aurretiko inkesta publikorik egin behar gabe.

Proposatzen den salmenta prezioa Domeinuek 2023ko otsailaren 23an eman iritziaren arabera da, hots 1 350 €.

Zehaztu du, geometroaren gastuak eroslearen gain izanen direla.

Ikusirik, Frantses Estatuko Higiezin Zuzendaritzak 2023ko otsailaren 23an eman iritzia,

Magis jaunaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ERABAKI DU, 54 m²ko sailaren bestela sailkatzea eta saltzea, erantsia den planoan agertzen den bezala, JV HZZ-ri 1 350 €ren truke,

ZEHAZTU DU, gastu guztiak, geometroarenak barne, eroslearen gain izanen direla,

AGINDU DIO, Auzapezari ekintza horren burutzeko behar diren izapide guzien egitea.

HITZ HARTZEAK:

Philippe Bacardatz jaunak galdetu du zer nolako handitzea egingen duten, jakinez lekua errepide bazterrean dela, eta aparkatzea biribilgunearen ondoan egingen ote den.

Jean-Noël Magis jaunak ihardetsi dio proiektua aurkeztua izan dela: txokolategiko tailer txiki baten egiteko eraikinaren handitzean datzala, azken urteetan txokolategia garatzen ari baita. Handitzea biribilgune aldera egingen da. Bertan txokolatea dastatzeko leku bat, museo gune bat eta txokolatea egiteko leku bat izanen dira, eta eraikitze baimena onartua izan da.

Auzapezak azpimarratu du handitzea aski xumea dela. Gehitu du Puyodebat jaunarekin elkartuko direla erabakiaren berri emateko.

002 – Langileria: langile bat Euskal Elkargoaren esku ezartzeko hitzarmena.

ERABAKIA

Auzapezak Herri Biltzarrari azaldu dio Kanbo herriko langile bat Euskal Hirigune Elkargoaren esku ezartzeko proiektua, Kanboko elkargo igerilekuaren kanpoko hondartzen eta aldagelen garbiketen eta mantenu teknikoaren egiteko, 2023ko apirilaren 17tik urriaren 23ra.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta deliberaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari, Euskal Elkargoarekin langile baten eskura ezartzeko hitzarmenaren izenpetzeko, eranskinean agertzen den bezala.

003 – Arnagako zalditegien eta laranjategiaren zaharberritzea: ad hoc batzorde baten osatzea.

ERABAKIA:

Auzapezak oroitarazi du, Arnaga etxeko aitzinaldeen berroneratze lanen segidan, laranjategiaren eta zalditegien diagnostiko bat egin dela, bi eraikin horien eraberritzeko eta erabilpen baldintzen aldatzeko.

Laranjategiari dagokionez, berroneratzeaz gain, ostatatze eremu baten sortzea pentsatua da, moldagarria izanen dena, kultur ekitaldien antolaketa errazteko asmoarekin.

Zalditegiei dagokienez, zaharberritze lanen helburua denboran zehar desagertu diren arkitektura elementuak berriz agerian ezartzea izanen da. Lan horiekin ere, museo jarduera izango lukeen harrera gune bateratua sortuko litzateke, pedagogia gela batekin eta teknologia berriei eskainitako gela bat.

Orain proiektu sustatzaileari dagokio obra kudeatzaile baten hautatzea, Arnaga jabegoko laranjategiko eta zalditegiko zaharberritze lanen obra kudeaketa egiteko.

Orain arteko aurrekontua obra nagusiarentzat (hormak, hetsidurak eta estaldurak) eta berroneratze historikoarentzat 658 000,00 €koa da, zergaz kanpo. Aurrekontu horretan ez dira sartzen antolamendu lanak.

Proiektua prozedura egokituko merkatuen esparruan kokatu behar da. Bi fasetan iraganen da, hautagaien kopurua eta negoziatu beharreko eskaintzak pixkanaka murrizteko. Hori dela-eta, prozedurak honako elementuak izanen ditu:

- Deialdi publikoa plazaratu-eta, hautagaien zerrendatzea; fase hau irekia izanen da;
- txostenetan oinarritutako sailkapen bat, deialdi araudiko "Hautagaitza" deitu lehen faseko irizpideen arabera;
- hautatu diren hautagaiei elkarrizketa;
- deialdi araudiko «Eskaintzaren aurkezpena» deitu bigarren faseko irizpideen araberako eskaintzen analisia; parte hau murriztua izanen da, eta soilik sailkatu diren hautagaiek izanen dute horretarako sarbidea;
- hautagaien sailkapena;
- proiektu sustatzaileak hala baderitzo, baldintzen negoziazioa;
- merkatuaren esleipena;

Merkatu deialdiko araudiak aurreikusten duen bezala, "Hautagaitza" deitu lehen fasean hiru hautagai sailkatuko dira aurkeztu duten hautagaitza txosten osoaren arabera. Horren ondotik, hautagaiek beren eskaintza aurkezten ahalko dute.

Bigarren fasean «Eskaintzaren aurkezpena», deialdi araudiak finkatzen duen epean, hots zortzi aste, hiru hautagaiek eskaintza aurkeztu beharko dute « ESQUISSE + » moduko proposamen batekin. Fase horretan elkarrizketak egingen dira.

Deialdi prozeduraren bi faseetan, proiektu kudeatzaileak prozedura horretarako apropos osatu «ad hoc batzorde» baten laguntza izanen du. Herriko Herri Biltzarkidez eta proiektuarekin loturik gaitasun tekniko eta/edo profesionalak dituzten pertsona kualifikatuz osatua izanen da.

Ad hoc batzordea batzorde aholkularia da. Batzordeko kide bakoitzak iritzia ematen du, proiektu sustatzailearen erabaki hartzea laguntzeko.

Bereziki, ad hoc batzordeak bere ekarpena egingen du hautagaitza txostenen azterketan eta eskaintzen analisisian. Eskaintzen analisisian eta elkarrizketetan parte hartzen du.

Batzordeko kideek Herriko Etxean egingen diren bilkuretarako gomitak eskuratuko dituzte. Batzordeak lege indarrez jarduteko ez da quorumik behar, zeren kide guztiak behar bezala deituak izanen baitira bilkurara parte hartzera.

Proiektu sustatzailearen eginkizuna izanen da bilkura bakoitzaren bilduma egitea, non ad hoc batzordearen ohar eta gomendioak bilduko diren. Dokumentuok herriak izendatu teknikariak egingen ditu.

Proiektu sustatzaileak du bere gain hartzen esleipendunaren hautatzearen ardura.

Ad hoc batzordea honela osatzea proposatu du:

- Christian DEVEZE jauna,
- Nicole AMESTOY anderea,
- Eliane AIZPURU anderea,
- Roger BARBIER jauna,
- Sébastien CARRE jauna,
- Jean-Paul EYHERACHAR jauna,
- Véronique CADEPOND LARRONDE anderea,
- Jean-Noël MAGIS jauna,
- Robert POULOU jauna,
- Bernadette REMEAU anderea,
- Jean-Paul ALAMAN jauna,
- Jean-Sébastien HALTY jauna,
- ZZNa (Zerbitzuetako Zuzendari Nagusia),
- ZTZa (Zerbitzu Teknikoetako Zuzendaria),
- Arnaga museoko kontserbazio zerbitzuko arduradun bat,
- Akitania Berriko Kultur Gaietarako Zuzendaritzako ordezkari bat.

Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ONARTU DU ad hoc batzordea gorago azaldu bezala osatzea.

004 – Aurrekontu nagusia: 2022ko emaitzaren esleipena.

ERABAKIA:

Herri biltzarrak 2022ko honako emaitzen berri hartu du:

	Funtzionamendua	Inbertsioak
Sartzeak	7 581 812,62 €	3 287 596,85 €
Gastuak	6 745 867,28 €	2 334 428,58 €
<i>Ekitaldiaren emaitza</i>	<i>835 945,34 €</i>	<i>953 168,27 €</i>
Aurreko emaitzaren berriz hartzea	184 158,76 €	770 001,34 €
2022/12/31ko azken emaitza metatua	1 020 104,10 €	1 723 169,61 €

2022ko kontu ekitaldiaren emaitza 1 020 104,10 €z positiboa da funtzionamendu atalean, eta 1 723 169,61 €z positiboa inbertsio atalean.

Finantzearako auzapez ordea den Aizpuru anderearen proposamena entzunik eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak gehiengoz emaitzen honako esleipena erabaki du:

ESLEIPENA:

- 2022ko aurrekontu nagusiko funtzionamendu ataleko emaitza positiboa, hots 1 020 104,10 € funtzionamendu sartzetara esleitzea.

- 2022ko aurrekontu nagusiko inbertsio ataleko emaitza positiboa, hots 1 723 169,61 € inbertsio sartzetara esleitzea.

Ez dute bozkatu: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Lilian Hirigoyen.

005 – Hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsia: 2022ko emaitzaren esleipena.

ERABAKIA:

Herri biltzarrak 2022ko honako emaitzen berri hartu du:

	Funtzionamendua
Sartzeak	17 895,82 €
Gastuak	13 404,42 €
<i>Ekitaldiaren emaitza</i>	<i>4 491,40 €</i>
Aurreko emaitzaren berriz hartzea	27 442,56 €
2022/12/31ko azken emaitza metatua	31 933,96 €

2022ko kontu ekitaldiaren emaitza 31 933,96 €z positiboa da funtzionamendu atalean. Finantzearako auzapez ordea den Aizpuru anderearen proposamena entzunik eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez emaitzen honako esleipena erabaki du:

Aizpuru andereak proposatu du 2022ko hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsiko 31 933,96€ko emaitza positiboa 2023ko hasierako aurrekontuko funtzionamendu sartzetara pasatzea.

006 – 2023ko aurrekontu norabideak.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, lehen auzapez ordea, azaldu du lurralde kolektibitateen ekintza nagusiki urteko aurrekontuaren bozkarekin baldintzatua dela, baina hainbat erabakik baldintzatzen dutela aurrekontuen zikloa.

Ziklo horretako lehen etapa, aurrekontu norabideen txostenaren aurkezpena izan ohi da.

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2312-1 artikulua araberak, 3500 biztanle eta gehiagoko herrietan, aurrekontuaren norabide orokorreari buruzko eztabaida antolatu behar da, aurrekontu hori bozkatu baino lehenagoko bi hilabeteko epean.

Hasierako aurrekontua nola egingen den ongi ulertzeko, aurkeztuko den txostenak honako elementuak eman beharko dizkie biltzarkideei: Frantziako datu ekonomikoen bilakaera, frantses estatuaren norabideak tokiko sektore publikoarentzat, hiriko finantza egoera, aurreikusten diren aurrekontu oreken ikuspegia, eta gastu zein sartzetako postu handietan aurreikusten diren aldaketa nagusiak. Aurreikusten diren urte anitzeko engaiamenduak eman behar ditu eta biltzarrari herriko zorraren egitura eta kudeaketaren berri eman behar dio.

Txostena, araudian finkatu baldintzetan eztabaidatu behar da Herri Biltzarrean. Herri Biltzarraren erabaki berezi batekin eztabaida egin denaren aitortzea egiten da Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2312-1 artikulua finkatu bezala.

2016ko ekainaren 24ko 2016-841 dekretua segituz, txostenak funtzionamendu eta inbertsio ataletako gastuen eta sartzeen bilakaeren aurreikuspena eman behar du, baita aurreikusten diren bilakaera hipotesiak aurrekontu proiektuaren eraikitzeke.

Aizpuru andereak aurrekontu norabideen eztabaida aitzin egin txostenaren berri ukan eta,

Herri Biltzarrak, aurrekontu norabideak eztabaidatu-eta

AITORTZEN DU, aho batez 2023ko erabaki berezi gisa, Aizpuru andereak, lehen auzapez ordea, aurrekontu norabideen txostena aurkeztu duela eta horren inguruko eztabaida izan dela. Txostena honakoari erantsia zaio.

HITZ HARTZEAK:

Auzapezak adierazi du 2023ko aurrekontu urtea zaila izanen dela inflazio eta energia krisiarengatik. Herri batzuek beren zerbitzu publikoen eskaintza murriztu dute, edo zerga bilketa azkarki emendatu, baina berak ez du bide hori hartuko. Zerbitzu publikoen maila mantenduko du, baita ekipamendu egituratzaileentzako inbertsioena ere. Zergei dagokienez, edozein erabaki hartu aitzin, energia krisiaren eraginak aztertuko ditu, nahiz eta inbertsioek lehentasun izaten segituko duten, aitzineko urteetan izan diren emaitza baikorrei esker. Auzapezak aurrekontuaren lerro nagusien aurkezpena finantza gaietarako lehen auzapez ordearen gain utzi du.

Eliane Aizpuru andereak aurrekontu norabideei buruzko eta zorraren egitura eta kudeaketari buruzko txostena aurkeztu du. Dokumentuak bost zati ditu: aurreikuspen ekonomikoak, frantses estatuko 2023ko finantza legea, herriaren diru egoera, 2023ko aurrekontu norabideak, hilobien aurrekontu erantsia, bestelako eranskinak.

Zehaztu du 2022ko inflazio tasak (%5,20) bere horretan segitu beharko lukeela batez beste 2023rako.

Ratio nagusiak, biztanleko funtzionamenduko gastu eta sarrera errealei dagozkienak, Pirinio Atlantikoetako eta Frantziako hein bereko herrien batezbestekoarekin alderatuko dira.

Abenduaren 31an, zorra 3 168 000 €koa zen, hots 471 € biztanleko 2022an.

Eliane Aizpuru andereak azpimarratu du aurrekontuen prestatzeko prozedura oraindik bidean dela.

Honako txostenean aurkezten diren zenbatekoak gastu eta sarrera aurreikuspenak dira, izan funtzionamendu atalean nola inbertsioetakoan. Aurreikuspenok aurrekontua bozkatu arte doituko dira, onetsiko diren hipotesien arabera.

2023ko aurrekontuen norabide orokorrek honako joera politikoak dituzte kontuan hartzen:

- Bigarren etxebizitzien gaineko %8,62ko bizitegi zerga baten aplikatzea, 2019ko inflazioaren berreskuratzeke*

- *Funtsen gaineko %2,77ko zerga baten aplikatzea, soilik fluidoen gastu emendatzeari aurre egiteko*
- *Antolaketa berria dela-eta, giza baliabideen indartzeko, gaitasun berriak egonkortuz (animazioa, komunikazioa eta abar),*
- *Halere, inflazio izanik ere, funtzionamendu gastuak mugatzea, aurrezki garbi positibo baten bermatzen segitzeko,*
- *Inbertsioen mantendu ahal izateko, autofinantzamenduaren bermatzea, 2022ko soberakinari esker.*
- *Funts Berdeen baitan, energia berriztatzearen erronkei ihardesteko inbertsioak markatzea.*
- *Argiki adierazi lur funtsen politikarekin segituz, eskuratze eta uzte ekintzak burutzea ToLFEP-aren menturazko eskuhartzearekin.*

Bistan da, honako norabideak nazioarteko eta bereziki Frantziako testuinguruaren menpe izanen direla.

Ondotik, 2023ko aurrekontu norabideak funtzionamendu eta inbertsio atal bakoitzeko zehaztuak dira.

Funtzionamendu sartzeen eta hauen bilakaeraren estimazioari esker, 2023ko aurrekontuen orekatzeko jokagaiak hauteman ditzakegu.

Aurrekontu norabideen gaur egungo egoeran, funtzionamendu atalari dagokionez, 2023ko sartze errealak 7 720 000 €tan aurreikusten dira, eta gastu errealak 7 400 000 €tan. Inbertsioen atalari dagokionez, 2023rako aurreikusten diren sartze errealak 4 930 000 €koak lirirateke, eta gastu errealak 5 250 000 €koak.

Aizpuru andereak 2023ko ekipamendu gordin nagusiak, programa baimenak eta ordainketa kredituak zehaztu ditu, (Haurtzain auzoko argiteria publikoaren eraberritzea, Tenis zelaia: zelai estaliak, San Laurendi elizako organoa, Arnaga: aitzinaldeen margotzea, Eskolen karrika - sareen lurperatzea, argiteria publikoa, zelai sintetikoa, ezker paretaren berroneratzea) baita urteroko inbertsioak ere, bereziki errepide lanak, auzo bilkuren lanak, Arnagako Laranjategiaren eta Zalditegiaren eraberritzeko ikerketak eta obra kudeaketa, bideo-babesa, coworking digitaleko gela eta herriko eraikinetan egiten diren lanak.

Hiriart-Urruty andereak xehetasunak eskatu dizkio zelai sintetikoari buruz.

Aizpuru andereak ihardetsi dio errugbi zelaiari dagokiola, eta Irastorza jaunak gehitu du herria horren egiteko baldintzak aztertzen ari dela.

Auzapezak gehitu du aurrekontu hautuak egin beharko direla futbola eta errugbiarentzako baliagarri izanen den zelai sintetikoaren eta beste proiektu batzuen artean.

Bacardatz jaunak galdetu du ea zelaia futbol txapelketetarako egiaztatua izanen denez.

Auzapezak ihardetsi dio nahitaez lanak egin beharko direla bi kirolen, eta bereziki futbolaren, nahitaezko baldintzei egokitzeko.

Aizpuru andereak zehaztu du, zergen emendatzeko proposatu diren tasekin 78 000 € sarrera gehiago izanen dela. Gure auzoko herriekin alderaketa eginez, ohartzen gara gure bizitegi zerga (%11,36) Senperen ondotik apalena dela, eta lur funtsen zerga, (%24,86) inguruko herrien edo ber heinekoen artean apalena dela ere.

Fiskalitate oinarrien aurreikuspenei dagokienez, Peio Etchelekuk ohartarazi du 2022koek bezala segituko dutela.

Eliane Aizpuru andereak ihardetsi dio 2023koak ez direla behin betiko ezagunak.

Peio Etchelekuren ustez emendatuko dira.

Auzapezak azaldu du, balitekeela oinarriak emendatuak izatea. Gehitu du, hori interesgarria izan daitekeela herriarentzat, baina oraingoz, behin betiko oinarri horiek ez direla ezagunak. Azaldu du baita ere, herri batzuek kontsideratu dutela beren oinarriak %7 emendatuko direla, baina oraingoz, eta Kanbori dagokionez, nahiago izan dutela 1995etik indarrean den ohiturarekin segitzea, hots aldaketarik ez egitea oinarriak ezagutzen ez diren bitartean.

Peio Etchelekuk lur funtsen zergari buruzko ezadostasuna agertu du, bereziki jende xumeenak hunkituko dituen oinarriaren emendatzeari buruz.

Auzapezak emendatzea justifikatzeko erran du inflazioa, eta energiaren kostua eta herriak behar dituen inbertsioak amortizatzeke ezinbestekoa dela. Gehitu du emendatzeak ez direla soilik energia gastuetan ematen, baizik eta langilerian ere bai(+%3), beharrezkoa baita zerbitzuen berrantolatzeke eta dagozkion kontratazio berrien egiteke.

Peio Etcheleku jaunak kezka erakutsi du oinarrien emendatzeak jabeengan izanen duen zergen emendatzearengatik.

Auzapezak ihardetsi dio horren eragina 2023ko administrazio kontuen kariatara aztertuko dela.

Peio Etcheleku jaunak azpimarratu du bitartean zergen emendatzea bozkatuko dela.

Auzapezak gehitu du tasen emendatzea ezinbestekoa dela Kanboko zerbitzu maila mantentzeko, eta kontrara, zergen emendatzerik gabe herriaren diru egoera okertuko litzatekeela.

Peio Etcheleku jaunak oroitarazi du ia z antzeko erabakia hartu zela

Auzapezak erantzun dio egoera arrunt desberdina dela aurten, lehenago eman diren arrazoiengatik (fluidoen prezioen emendatzea, soldaten indizearen emendatzea, eta abar). Berretsi du kostuen estaltzeko ezinbestekoa dela zergak emendatzea.

Peio Etcheleku berretsi du zergak berez emendatuko direla oinarrien emendatzearekin.

Gero, Euskal Elkargoari euri uren kudeatzeko eskumenarengatik konpentsazioei buruzko galdera pausatu du, jakinez Kanbok 40 000 € galduko dituela.

Auzapezak ihardetsi dio hori ez dela oraindik aitzin aurrekontuan txertatu, baina egia dela horrek doitzea eragiten ahalko duela 2023ko Aurrekontu Nagusiaren bozkatzeko momentuan.

Auzapezak espero du ez dela polemikarik izanen euri uren kudeaketa eskumenaren inguruan, jakinez hori CLECT-aren eskumena dela. Gehitu du, horri buruz Kanbok jarrera berezia izan duela, bitan zigortua izan baita saneamendu zerga Euskal Elkargora transferitu denetik. Kanborentzako kalkuluak eginez, karga ez litzateke 40 000 €koa baizik eta 47 000 €koa, eta hein horretan onargarria dela. Proposatu du horri buruzko elementuak CLECT bilkuraren ondotik aurrekontuan txertatzea.

Amaia Beyrie andereak bigarren etxebizitzan bizitegi zergari buruzko informazioak eskatu ditu, beste herriekin alderatzeko, eta ea bigarren etxebizitzan gaineko zerga emendatzea aurreikusia den, jakinez batezbestekoaren azpitik daudela.

Auzapezak ihardetsi dio inflazioarengatik %8ko emendatzea proposatu dela, baina tasa hori auzoko herrietatik biziki urrun dela.

Eliane Aizpuru andereak inguruko herrien tasak eman ditu: Hazparne %12,97, Maule %12,14, Senpere %10,67 eta Uztaritze %11,44.

Peio Etcheleku jaunak galdetu du ea zerga gehiago emendatzen ahal den.

Auzapezak iradoki du ikustea zerga desberdinen tasak nola deslotzen ahal diren elkarrengandik.

Amaia Beyrie andereak galdetu du zein den bigarren etxebizitzan bizitegi zergak ematen duen dirua.

Eliane Aizpuru andereak erantzun dio 192 000 € direla, baina ez dela asko emendatu iaiztik, gutxi gora behera 20 000 €.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak galdegin du ea funtsen zerga 65 000 €z emendatu den.

Eliane Aizpuru andereak erantzun dio funtsen zergaren oinarria bizitegi zergarena baino sei aldiz handiagoa dela.

Auzapezak oroitarazi du terma jarduerarekin lotura duten etxebizitza alokatzeak ez daitezkeela bigarren etxebizitza bezala kontsideratu, eta bestalde inportantea dela etxebizitza horiek ez ikustea espekulaziorako denboraldiko alokairu bezala.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak Auzapezari galdetu dio nola egingen duen, eta ea zaila izanen den.

Auzapezak ihardetsi dio, 21 egun irauten duen terma egonaldi batentzat alokatzen ezartzen diren etxebizitzak ezin direla bigarren etxebizitza bezala kontsideratu, edo espekulaziorako denboraldiko alokairu bezala. Kontuan izan behar da herriko termen ekonomia politikarentzat ezinbestekoak direla.

Nathalie Aïçaguerre andereak proposatu du apartamentu bat baino gehiago duten jabeek zergak emendatzea, eta akuilatzea gutxienez bi etxebizitza urterako alokairuan ezartzera.

Auzapezak baieztatu du gaia luze eta zabal landu behar dela, baina ez dela gaurko gaia. Azaldu du lehenik arazo fiskala badagoela, goitik behera berrikustekoa, etxebizitza nagusia saltzeko zergarik ez ordaintzeko eta denboraldiko alokairuen beherapenentzako, baina guzti horrek sakoneko azterketa behar du... baita Kanbon etxebizitza nagusiaren kasuan zergarik ez ordaintzeko, eta alokairuan ezartzen diren ondasunen zerga beherapenentzako. Bere ustez, gai horiek lantzen badira, arazo zenbait konpondu liteke, baina horretarako alderdi guztien partehartzea beharko da.

Amaia Beyrie andereak galdetu du ea herriko forfaita egokituko denez energia kostuen eta inflazioaren arabera.

Eliane Aizpuru andereak ihardetsi dio forfaita hiru urtero berrikusten dela.

Beyrie andereak ohartarazi du Ukrainako energia larrialdiarekin egoera aldatu dela.

Aizpuru anderearen aburuz, iazko emendatzea Covid-19aren gastuei lotua zen, ez egokitzapen bati.

Beyrie andereak dio ez dela hala. Iazko emendatzea aitzineko urteetako blokeo baten ondorioa da.

Auzapezak zehaztu du forfaita iaz berrikusi zela eta ez dela urtero berrikusiko, eta hiru urteak pasatu arte orain den bezala mantenduko dela.

Hiriart-Urruty andereak argipenak eskatu ditu GEUZaren dirulaguntzari buruz: 160 000 €.

Auzapezak erantzun dio dirulaguntza ez dela aldatu eta dirulaguntza horrek ongi betetzen duela GEUZaren aurrekontua.

Vincent Goytino jaunak gehitu du orain beharrak egonkortu direla, eta eskatu diren dirulaguntzak eta aurrekontuan aurreikusi zirenak aski direla gizarte ekintzaren beharrei ihardesteko.

Amaia Beyrie andereak azaldu du berotzeko laguntza bat zabalago ematea proposatu zuela GEUZaren bidez, baina bere proposamena baztertua izan dela eskaera gehiago ez ukateko xedez.

Auzapezak erantzun dio araudiek laguntza hori baldintzatzen dutela eta herriak ez diezaiokeela jende guztiari eman. Baiezta du inoiz ez dela eskaerarik ukatu arazo bereziak aurkezten zirenean.

Amaia Beyrie andereak azaldu du denek ukan ez ditzaketen laguntzen inguruan komunikazio akatsa izan dela.

Auzapeza ez da horrekin ados eta gehitu du Vincent Goytino jaunak sistematikoki aurkeztu dituela eskaerak GEUZeko administrazio kontseiluan.

Vincent Goytino jaunak berretsi du herriko webgunean informazioa zabaldu zela, baita GEUZarenengan eta herri aldizkarian, baina ez dutela, halere, irratian mezurik zabaldu!

Philippe Bacardatz jaunak galdegin du zergatik diru sartze gehiago ukateko nazioarteko eta energia krisiak kontuan hartzen diren, ez ordea gastuentzat, non uzkur agertzen baitira.

Auzapezak azaldu du gastuak ere kontuan hartzen direla, baina inflazioa soilik gastuetako hiru lehen postuetan aplikatu dela. Horregatik dirulaguntzak emendatu dira eta inflazio tasaren bilakaerari egokitu. Dagoeneko, fiskalitateak ez du aukera handirik ematen, jakinez funtsen zergak baizik ez direla gelditzen eta gure aurrekontuarentzat garrantzitsuak direla.

Eliane Aizpuru andereak azaldu du beste gastuak ere inflazioaren arabera doitu direla, %5 eta %6 arteko tasekin, aitzineko urtean egin ziren gastuen arabera. Energia gastuak ere aginduen arabera egokitu dira.

Philippe Bacardatz jaunak galdera egin du erosketa talde batean parte hartzearen inguruan prezioen emendatzeak saihesteko, eta aldi berean hiru urtez prezio finkoak izanen direla.

Auzapezak ihardetsi dio hiru urteko prezio finkorik ez dela gehiago. Dagoeneko, erosketak erosketa talde batetik pasatzen dira, baina perspektibak ez dira ikaragarriak.

Philippe Bacardatz jaunak ohartarazi du dirulaguntzak tipitu direla.

Auzapezak ezetz. %5,20ko inflazioa atzitu zaie. Beraz, lerroz lerro dirulaguntzak ez dira tipitu.

Didier Irastorza jaunak zehaztu du Turismo Bulegoko dirulaguntza hiru urterako blokatu zela.

Eliane Aizpuru andereak baieztatu du eta gehitu du elektrizitatearen merkatua ere hiru urtekoa dela.

Auzapezak eztabaida hetsi du, eta Herri Biltzarrari aitorrarazi dio norabideen gaineko eztabaida izan dela eta 2023ko aurrekontu norabideen txostena existitzen dela.

– Informazioak:

Auzapezak Akademia Ikuskariaren gutuna aipatu du, non Behereko Plazako eskolan irakasle postu baten kentzea baieztatzen duen. Izendapenei dagokienez, berriz, errektoretzaren erabakiaren beha gaude.

Auzapezak, iragan saioan egin ohar eta galderari erantzun die:

Azpmarratu du Argixu Hiriart-Urruty andereak Herri Biltzarreko saioan egin hilobie buruzko oharra zuzena dela. Zehaztu du, hain zuzen, bi lekuko hiru hilobik ematen dutela 5 412,50 €ko zenbatekoa, eta ez hilobi bakarrak.

Peio Etcheleku jaunak iragan saioan egin galderari ere erantzun dio, hain zuzen TE64ri esleitu zaion berotze sarearen eskumena berreskura daitekeela: eskumena berriz hartzeak suposatuko luke esleipendun berriak egin dituen sare lan guztiak ere eskuratu beharko direla. Auzapezak Territoire d'Énergie 64-ren estatutuak aipatu ditu. 4. artikulua gas, bero eta hotz sareen eskumenen berriz hartzea (hautazkoa) aipatzen du. Azaldu du, herriak eskumena berreskuratuko balu, sindikatuak egin lanen gastuak bere gain hartu beharko lituzkeela, lanak osoki amortizatu arte. Gainera, sarearen ustiaketa kontratuen egitea eta kudeaketa berriz egin beharko lirateke. Bestalde, esleipendunak onar lezake obra agintaritzarako delegazio hitzarmen baten izenpetzea, herriaren eremuan bero sare partikular berri baten egiteko.

Auzapezak Herri Biltzarraren saioa 20:20ean hetsi du.

Véronique CADEPOND-LARRONDE
Saioko idazkaria

Christian DEVEZE
Kanboko Auzapeza